


Noaqua!!

H A M A B O S K A R I A

2000ko urriaren 13a V.urtea

Usurbil, 98. zenbakia

A woman with long dark hair and glasses, wearing a bright red jacket over a white top and light-colored pants, stands on a stone step. She is holding a large, elaborate bouquet of flowers, including red and white roses, greenery, and a long, light-colored fringe-like element. The background is dark, suggesting an outdoor setting at night.

**Hiru eguneko
amets gaiztoa**

SINADURA BILKETA EUSKAL HERRIAREN ALDE!

ZERA ADIERAZI NAHI DUT:

Ni Euskal Herrikoa naizela, Euskal Herria dela nire Herri bakarra.

Nire borondatez ez dudala beste inongo herritartasunik aitortzen.

Euskal Herria, aldiz, Herri ukatua eta zatikatua izaki, egun inposaturiko herritartasun espainiar zein frantziarra direla babes legalez gure Herrian bertan aldarrikatu eta adierazi ahal direnak.

Gertakizun erabat ohikoa dela euskal herritar izan eta horrelaxe azaldu nahi dugunok gure burua espainiar edo frantziar gisa aurkeztu behar izate-arena, bai administrazioen aurrean, baita gizarteko hainbat arlotako eginkizunetan ere.

Nire euskal herritartasuna adierazteko ezintasun honek dagozkidan giza eskubideen

urraketa etengabea dela. Izan ere, Nazio Batuen Biltzar Orokorreko 1948ko abenduaren 10eko Bilkuran Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsala onartu zen, non besteen artean, zera adierazi zen:

15. ARTIKULUA:

1. Pertsona orok nazionalitate bat izateko eskubidea du.
2. Inori ez zaio nazionalitatea arbitrarioki ezeztatuko.

Euskal Herria bere osotasunean oinarritzat hartu eta euskal herritar guztioi irekita dugun lehenengo Erakunde Nazionala den UDALBILTZA sortua dela jakinik, euskal herritar garenon herritartasun horren adierazpen demokratiakoari bidea irekitzea beharrezkotzat jotzen dudala.

Euskal Herriko Herritarren Eskubideen eta Eskubide Politikoen Aldeko Herri Ekimena

zure hitza, zure erabakia,
zure sinadura

Bai Euskal Herriari

UDALBILTZARI EUSKAL
NORTASUN AGIRI NAZIONALA
JAULKI DEZALA ESKATZEKO
SINADURA BILKETA

BAI
EUSKAL HERRIARI

EUSKAL HERRIKO LEHEN ERAKUNDE NAZIONALARI, UDALBILTZARI

Izen-abizenak

Helbidea

Udalerrria

ESKATZEN DUT:


Euskal Herritarra izanik, espainiar edo frantziar herritarra ez naizenez, UDALBILTZAK Herri honetako partaide garen guztion herritartasuna adierazi ahal izateko Euskal Herritartasun Nazio Agiria sortzea.

Honako idazki hau Euskal Herritartasun Nazio Agiriaren eskakizun ofizialtzat onartzea.

Euskal Herritar gisa agertu nahi dugun guztion errolda osatzea.

Nire nahia eta eskubidea errespetatua izan dadila

.....n, 2000ko
.....ren.....a



Urriaren bigarren
hamabostaldian zure
etxetik pasako gara
sinadurak biltzen.



Abertzalea bazara,
sina ezazu!

Txerrimunik ordainetan



Zorionik beroenak **Manuel Borda** eta **Felisa Izagirre**ren ztat. Hil honen 10ean 60 urte bete dira ezkondu zirenetik eta urte horietako maitasunaren emaitza garenok merezi duzuen tamainako besarkada bat eman nahi dizuegu. Muxu bat, beraz, seme-alaba, suhi, errain eta biloben partez eta datorren urriaren 14an denok batera ospatuko dugu afari eder batekin. Segi horrela urte askoan!



Aitona Julianek 72 urte bete zituen urriaren 4an. Zorionak eta muxu asko **Christian** eta **Alexander**ren partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak **amatxo Ana!** Urriaren 15ean da zure urtebetetze eguna. Zorionak eta muxu haundi bat, asko maite zaitugu. **Christian**, **Alexander** eta **Jose Mariren** partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota fituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarki jarri beharreko testua eta argazkia.
Hurrengo alea: urriaren 27an
Ekartzeko azken eguna: urriaren 20an

Hildakoak



2000-09-27
Bittori Illarramendi Zubeldia
86 urte
Aginaga

2000-09-30
Juan Joxe Zugazti Garate
80 urte
Atxegalde

Jaiotzak

Miriam Arrillaga Beloki
(2000-09-21)
Aginaga

EUSKO TRENBIDEAKEN UDABERRIKO AUTOBUS ORDUTEGIA

ASTEGUNETAN						ASTEBURUTAN					
Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.40	08.05	08.25	06.45	07.05	07.30	07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
08.00	08.25	08.35**	07.15	07.35	08.00	08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
08.40	09.05	09.25	07.45	08.05	08.30	09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
09.00	09.30	09.40*	08.15	08.35	09.00	10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
09.40	10.05	10.25	08.45	09.05	09.30	11.30	11.55	12.15	10.45	11.05	11.30
10.40	11.05	11.25	09.20**	09.30	10.00	12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
11.40	12.05	12.25	09.45	10.05	10.30	13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
12.00	12.25	12.35**	10.20*	10.30	11.00	14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
12.40	13.05	13.25	10.45	11.05	11.30	15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
13.00	13.30	13.40*	11.45	12.05	12.30	16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
13.40	14.05	14.25	12.45	13.05	13.30	17.30	17.55	18.15	16.45	17.05	17.30
14.00	14.30	14.40**	12.45	13.05	13.30	18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
14.40	15.05	15.25	13.20**	13.30	13.55	19.30	19.55	19.15	18.45	19.05	19.30
15.00	15.25	15.40*	13.45	14.05	14.30	20.30	20.55	20.15	19.45	20.05	20.30
15.40	16.05	16.25	14.20*	14.30	15.00	21.30	21.55	21.15	20.45	21.05	21.30
16.40	17.05	17.25	14.45	15.05	15.30	22.30	22.55	23.15	21.45	22.05	22.30
17.40	18.05	18.25	15.20**	15.30	15.55						
18.00	18.30	18.40*	15.45	16.05	16.30						
18.40	19.05	19.25	16.20**	16.30	17.00						
19.00	19.25	19.35**	16.45	17.05	17.30						
19.40	20.05	20.25	17.45	18.05	18.30						
20.00	20.30	20.40*	18.45	19.05	19.30						
21.00	21.25	21.45	19.20*	19.30	20.00						
22.00	22.30	22.50	19.45	20.05	20.30						
			21.15	21.35	22.00						

* Orioraino ** Aiaraino * Oriotik ** Aiatik

JUANTXO
burdindegia
kale nagusia 10 Usurbil
37 00 08

BENTARNOA
BENTAIK NATOR...

Igandetan ganba-ziri mundialak!

N • I
Ileapaindegia
MISTOA
Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51

**Argitaratzailea**

Noaia! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaia.k.e@euskalnet.net
Web orria:
http://www.topagunea.com/noaia/

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalaa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Manuel Begiristain, Eukene Kamino, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbiet, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea, Aintzane Aizpurua eta Nagore Gonzalez.

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika, Gari-koitx Udabe, Olatz Lasagabaster eta Agurtzane Solaberrieta.

Maketazioa eta diseinua

Olatz Goenaga, Zalaa Arnaiz eta Ibon Beristain.

Dokumentazioa

Idoia Agirre, Aintzane Aizpurua, Leire Mujika, Leire Unanue eta Nagore Gonzalez

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaia! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunikizunik.

Noaia! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

Azala:

Olatz Altunari ongi etorria
Oxtapen

**E.T.A militarra alde hemendik**

Luis Mari Ormaetxea

Azken egunotan herrian zehar idatzi bat banatu da, EUDIMA (Euskal Udai Intsumituen MAnkomunidadea) erakundetik sortua eta berarekiko atxikimendua eskatuz. Bere izenburua: Euskal Herriaren desmilitarizazioa, nahia eta premia. Idatzi horri buruz nire iritzia plazaratu nahi dut.

Harrigarria da benetan ze neurritan desitxuratu dezakeen Ezker Abertzalearen kontrolpean geratu den EUDIMA bezalako erakunde batek diskurtso antimilitarista.

Laburtuz, tesi hau defendatzen da idatzi hortan: Estatu espainiar eta frantsesak beren armadak Euskal Herrian dituzte, euskal herritarrek beren etorkizuna libreki erabakitzeko duten eskubidea zapuzteko, eta egungo konstituzioa armen indarrez iraunarazteko. Armada hauek Euskal Herriko joan beharra dute, herritarrok gure etorkizuna libreki erabakitzeko baldintza demokratikoak izan ditzagun.

Benetan frustantea da azken urteetan intsumisioa gertutik bizi izan dugunontzat ze neurritan Ezker Abertzalea intsumisioaren diskurtsoa desnaturalizatzen joan den. Arrakasta izan duen beste giza-ekimen batzuk bezala, Ezker Abertzalea, intsumisioa bere egiten ahalegindu da, bere tesi politikoak erakargarriagoak egiteko tresna bihurtuz. Gogora ekarri behar dira 88, 89 eta 90 urteak, intsumisioaren lehen urteak; garai hartan intsumisioaren alde apustua egin genuenok, errepresioaren arrisku errealek gain, Ezker Abertzalearen isekak entzun behar izaten genituenean; antimilitaristak eta intsumisioak "txoro utopikotzat" gintzutenen; "la mili con los milis" esaten zigutenean, eta hormetan pintatzen zutenean.

Desmilitarizazioa, espainiar zein frantziar armadak Euskal Herriko alde egitea dela esatea, erredukzionismo interesatua besterik ez da; eta desmilitarizazioa, euskal herritarrek bere etorkizuna libreki erabakitzeko baldintza demokratikoak gauzatzeko bidea dela esatea, demagogia hutsa.

Garbi utzi behar da, "intsumisioa" eta "desmilitarizazioa" bezalako kontzeptuek ez dutela sorburu Ezker Abertzalearen tradizio politikoan, ezta gutxiagorik ere. Kontzeptu horiek, "Antimilitarismoa bezala", "ez-biolentzian" eta "desobediencia zibilean" oinarritzen dira, eta hauen garapen teorikoa, Mahatma Gandhi (1870-1948) eta Henry David Thoreau (1817-1862) pakezale haundietan dago; ez Ezker Abertzalean.

Herri honen desmilitarizazioa benetan gauzatu nahi badugu, ez-biolentzian eta desobediencia zibilean oinarrituriko ekimenak garatu behar dira; eta, ez du helburu izango espainiar zein frantziar armadak euskal gizartetik at uztea soilik, euskal gizartearen esparruan ematen diren espresio militar guztiak desgertaraztea baizik. Baldintzapen militarrik gabe gizarte oro askeagoa baita, eta askatasun horrek ematen die herriei erabaki demokratikoak hartzeko oinarria.

EUDIMA bezalako erakunde batek ezin dezake herri honen militarizazioaren alderdi bat bakarrik kontuan hartu; herri honek, gaur egun, sufritzen duen militarismoaren espresio krudelenak ETA-ren ekitza armatuak direnean. ETAk ere, erakunde militarra denez, euskal gizartetik kanpo geratu behar du.

E.T.A., UTZI PAKEAN EUSKAL HERRIA. ALDE HEMENDIK!



Usurbilgo Udalak



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal Herra!

izten?



Jexux Mari Errekondo Aizpurua

Kaleberrin bizi bada ere, inork baino hobeto dakizki errebote kontuak. Urte ugari egin zituen Zubietan, eta aita errebote jokalaria zenez, berak ere afizio bera izan du urteetan zehar.



Usurbilen jaio bazinen ere Zubietan urte asko egin zenituen ezta?

Sei urte arte Etxebesten, orain bizi naizen leku berean egon ginen. Urte horretan, gerraren ondorioz Zubietako Aizpuru baserrira joan behar izan genuen, amaren etxera. Han osaba mutilzaharra bizi zen neskame eta morroiekin, baina gerra etorri zenean ospa egin zuen eta gu joan ginen Zubietara.

Beraz, kaletik baserrira pasa zineten.

Bai, halaxe da. Aizpurun ganadu asko zegoenez baserrian bizi izan ginen adinik onenean. Jo eta fuego egiten genuen lana, egin beharko! 26 urte nituela, ordea, berriz ere jaio nintzen etxera etorri ginen. Etxea hau erre egin ziguten, eta leku berean beste bat eraiki behar izan genuen.

Eskolara joaten al zineten?

Hasieran Usurbila joaten ginen, baina gero Zubietan bertan hasi ginen. Ondoren Lasartera joanaz ere ibili ginen azkenean 14-15 urterekin Andoainen bukatzeko. Bizikletan joaten ginen hara goizean joan eta gauean etorri. Ez nintzen bakarra, nire anaia usurbildarren bat, Lasartekoak eta Oriokoak ere bizikletan joaten baitziren Andoaina. Hango erreminta fabrikari egin nituen eskola-ko azken urteak.

Zenbat urterekin utzi zenuen ba?

Soldaduskara joandakoan. Soldaduskatik etortzean hara joateko gogoak ihes egin zidan. Gogorra zen bizikleta hartu eta Andoaina joan-etorria egitea.

Garai hartan errebotean ibiltzen al zineten?

Ibiltzen ginen, baina ahal genuen moduan. Zedoertan ibili nahi eta pelotan ibiltzen ginen

ahal zen moduan. Harrapatzen genuenarekin jolasten genuen garai hartan, trapuzko baloiarekin eta. Aizpurun, ordea, guk 14-15 urte genituela kaxa batean erreboteko erreminta eta pelota zahar batzuk azaldu ziren, eta nahiz eta nahiko hondatuta egon haiekin hasi ginen errebotean jokatzen. Hartu eta berehala puskatzen baziren ere, josi eta han ibiltzen ginen.

Jende asko ibiltzen al zineten?

Kuadrila dexentea biltzen ginen, baina antolakuntza ona genuen. Garai hartan galarazita zegoen dirua biltzea, baina guk, isilean, hilean duro bat jartzen genuen pelotak erosteko. Gero, ordea, erremintak erosteko dirua behar zela konturatu ginen, eta orduan sortu zen Yoko-Garbi elkarteak.

Zubietako plazan ezezik Donostiara ere joaten zineten ezta?

Bizikletaz joaten ginen gainera, Anoetan erreboteko plaza baitzegoen. Hala ere, orain baino dexente gutxiago jokatzen genuen errebotean. Gerra denboraren ondoren poliki-poliki etorri zen errebotearen berpiztea. Iparraldera (Sara, Baigorri...) ere joaten ginen errebotean jokatzerara. Hango jaietan gu joaten ginen, eta hemengoetan beraiek etortzen ziren.

Zubietako plazaren egoera ere ez zen halamozkoa...

Belardia zen plaza hura, oso egoera txarrean zegoen. Ni soldaduskan nengoela, 1951. urtean jarri zuten egoera hobean. Belarra kendu, lur ugari atera eta harrobiko hautsa bota zuten. Nik behintzat ez nuen lanik egin, soldaduskan nengoela eta. Gero sorpresa ederra hartu nuen plaza "berria" ikusitakoan.

Andatzá
S.L.
Carrocerías

Industrialdea
Errota Berri kalea
Tlf: 36 36 77

GALARRAGA GARRAIOAK

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

Haur
jantziak

Pauma

Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

TXOKOALDE

Eukene Kamino



Gogoratzen jarrita...

Goizero, lanerakoan, Galar-diko autobus geltokitik pasatzen naiz auzoko umeak ikastolara joateko autobusaren zain egoten diren garaian, eta hiru haur besterik ez dira egoten...hiru besterik ez.

Errepikatuko ote dira berriro ere gu ume eta gaztetxo ginen garaiko irudiak?

Garai hartan ohikoa izaten zen auzoko edozein txoko eta bazterretan gu jolasten ikustea. Lagun mordo bat biltzen ginen, neska eta mutil, eta ez genuen aspertzeko astirik izaten. Makina bat gauzatan jolasten ginen: gordeketan, harrapaketan, "alturitas" delakoan, kromoe-tan, goman, soka saltoan, txapetan, numeroetan, dolarrean, "putxeros" delakoan (fron-

toian), polizia eta lapurretan, kartetan, monopolian, kurkulu-xetan, "dos, cinco, diez", "chorro, morro, pico, tallo, que", "trenavia sobre..." eta antzeko mila jolasetan.

Lehenago ume parkean igerilekua ere bagenuen, hondar eta guzti. Txirristatik jaitsi eta gustora asko ibiltzen ginen uretan, hura gozamina, hura luxua...!

Goxoki dendarik ez genuen, ezta beharrik ere, bagenituen bestela ondo pasatzeko aukera paregabeak!

Usurbildik, gauean, dantza ikastarotik kuadrila ederra etortzen ginen astean birritan tren tuneletik barrena. Gu Santuena aldeko tunel-ahotik sartzen ginen linternak piztuta eta gura-soak Txokoaldekotik sartzen

ziren gure bila, tunel erdian topo egiten genuelarik. Gu barruan ginela sarritan pasatzen ziren trenak eta guretzat normala izaten zen hau guztia, nahiz eta gaur egun debekatu-ta egon tuneletik barrena ibiltzea. Haseran esan dudan bezala, ezagutuko al dugu berriz ere Txokoalde haur gehiagorekin?, baietz espero dut. Guk haur eskola auzotik atera gabe egin genuen, Portu Berrin, hain zuzen ere. Dotrina, berriz, Miren Kara-Etxekoak eta Maite pelukerak erakusten ziguten. Askori hau guztia oso arraroa egingo zaizue, ezta? Niri guztia amets eder bat dela iruditzen zait. Baina nik benetan bizituta-ko zerbait da, barru-barruraino sartuta dudana eta ahal izanda ere, inoiz aldatuko ez nukeena.

KALEBERRI

Ines Kamino



Frontoiko eserlekuen itxura berria

Gure frontoiaren eserlekuak ari dira itxura pixka bat hartzen azkenean. Herrian ika-mika ugari sortu duten lanak, beraz, aurrera doaz.


Halako frontoia egin eta gero zuen akatsaz konturatzea ere! batek baino gehiagok gogor kritikatu zuen hankasartzea. Ondoren, eserlekuei estalkia jartzeko lanak hasi zirenean, denok harrিতuta begiratzen genuen ulertzen nahiko zaila zen estalki berezia. Azkenean, eta batez ere azken asteotan, "misterioa" argitzen joan da eta eserlekuen itxura berria ezagutzeko aukera izan dugu. Dagoeneko lanak nahiko aurreratuta daude eta egurra-

rekin estali dituztenez, hasieran nahiko hotzak ziruditen burdinezko "armatrusteak" pixka bat hobetu dituztela esan beharra dago. Hala eta guztiz ere, nahikoa nabarmenak badira.

Pilotazale batzuk ez daude oso gustora baino, kaleko argia ez dela asko sartzen, partidak ikusteko oztopo bat direla...baina, konformatu egin behar!

Hanka sartzekak eginaz ikasten omen

da. Oraingoan, eta pixka baterako frontoia badugula kontuan izanik, konponbide honekin jo beharko dugu aurrera. Ondorengo belaunaldiek noizbait frontoia konpondu beharko balute, badakite, behintzat, zer ez duten egin behar.



KALEZAR

Ainara Uribe



Sagar usaina eta berri usaina auzoan


Udazkenarekin batera, usain ezberdinak iritsi zaizkigu auzora. Batetik sagar usaina, dagoeneko hasi baitira sagardoa egiten. Aurtengoan sagarrondoak nahiko makal ibili dira eta ez da uzta ona izan. Inguru hauetan oso sagar gutxi izan da eta baita Asturias eta Galizian ere, azkenean Frantzia aldetik ekarri dute sagar gehiena. Saizar Sagardotegira hiru milioi kilogramo sagar ekarri dituzte milioi eta erditik gora sagardo litro egiteko.

Baina bestelako usaina ere bada auzoan, berri usaina, hain zuzen ere. Etxe berriak

egiten ari dira eta ondorioz, auzokide berriak izango ditugu laster. Illarramendi aurreko etxeak laster amaituko dituzte, batzuk auzotarrek beteko dituzte, beste batzuk herritik Kalezar aldera etorriko direnak eta kanpotik ere ba omen datoz Kalezar aldera bizitzera, merezi du eta!

Azaroan giltzak emango dizkiete etxe berriko bizilagunei eta gehienak berehala bertan bizitzen jarriko dira. Askotan ger-

tatzen den moduan epe aldaketak eta horrelakoak izan dira, baina azkenean etxe berria laster izango dute. Gustura egon daitezela denak eta ongi etorri!



ATXEGALDE

Auzoan arraindegirik ez

Maria Jesus Urbietta



Oraingo tartetxo honetan herriko arraindegiaz hitz egitera natorkizue.

Dakizuen bezala, azken 24 urte hauetan denok ezaguna dugun Dibina Lanberri oriotarrak izan du arraindegia Atxegalden. Goizean goiz jaiki eta egunero gure auzo eta auzo ez direnentzat arrain freskoa ekartzen saiatu da, bizimodu berritan gogorra hau. Baina jubilaioaren garaia ere iritsi zaio, ondo merezitakoa, gainera eta, beraz, auzoan arraindegirik gabe geratu gara.

Orain arte arraindegia zegoeneko lokala alokairuan dago, ea norbait animatzen den! itxaropena, behintzat, ez dugu

galdu eta norbait animatuko bada ederki eskertuko dugu, bai horixe!

Bestalde, arraindegiaren parean dagoen baranda aspalditik hautsita dago, beraz,

ezbeharren bat gertatu aurretik konpontzea ez litzateke batere gaizki egongo. Egoera berritan arriskutsuan dago aipaturiko baranda hau, batez ere haurrentzat.



SANTUENEA

Agustin Esnaola



Eskerrik asko nire irakurleei

Bi hilabetetik behin idazten dudan kronika txiki hau irakurtzen dutenei, eskerrik asko. Benetan, eskerrik asko!

Udara aurreko boladan, kritika onak eta txarrak entzun eta irakurri ditut, nire kronika honetan idatzitakoari buruz. Publikoki azaltzen den edonork, kritikak entzuteko prest azaldu behar du, hauek onak edo txarrak izan. Guztiak "kiroltasunarekin" hartu behar dira lanean gauzak ahalik eta ondoen egiten jarraitzeko.

Kasualitatea izango da baina kronista izateko aukera zinegotzi hautatua

izatekoa baino lehenago eskaini zidaten, eta inork ez zidan nahi nuena idazteko eskubiderik kendu. Ezta zinegotzi hautatua izan nintzenean ere. Nahiz eta baten batek, hainbat gauza lekuz kanpo esaten ditu-



dala idatzi abuztu aurreko Noaua!n.

Eskerrak eman behar dizkiet kronika hau betetzeko ideiak eman dizkidaten auzotarrei ere. Nahiz eta horregatik aurrez aipatutako Noau!nn, baten batek ironikoki ongi etorria eman badu ere bere estilora.

Nahiz eta "Cañero" antzera edo "Coña"rekin idazten duela entzun, norberak ondo egin duela eta garbi jokatu duela baldin badaki, ez du zergatik kezkatu behar. Alderantziz, onartu eta eskertu berari buruz idatzitakoa, grina txarrez eginda baldin badago ere.

URDAIAGA

Nongoak ote?

Alazne Begiristain



Egutegiaren arabera udazkenean sartuak gara, baina nik ez dakit zer esan. Batzuetan badirudi oraindik uda dela eta besteetan, berriz, negu bete-betean gaudela dirudi. Hala ere, hostoak erortzen hasi direnez eta parkeko ur-jauziak dakarren ur pila ikusita, egutegiari kasu egin beharko. Gainera, orain aprobe txatu beharko dugu txorien kantuak entzuteko, laster alde egingo baitzizkigute.

Baina ez natzaizue eguraldi kontuez hitz egitera etorri, San Praix-

kuez baizik. San Praixkuak Urdaigako kronikan? galdetuko du norbaitek. Lasai, lasai... jarraitu irakurtzen.

Aginagan egon garen guztiok ikusi dugu "Agiña Askatu" dion kamiseta. Dirudien ez dute usurbildarrak izan nahi...Ah! eta

zer egin dezake honetan guztian Urdaigak? San Esteban-darrok usurbildarrak gara, orain arte, behintzat, hala izan gara. Baina, zer entzungo eta Urdaiaga "afueras de Aginaga" omen da. Hau da kome-ria! Nongoak ote gara orain?



AGINAGA

Sokatira berriz ere protagonista

Pasa berri diren San Praixkuetan eta ohikoa den modura sokatira protagonista izan da, bai auzoentzat behintzat.

Pasa den igandean, hilaren lehenengoan izan zen auzoko lau talderen arteko sokatira saioa. Bertan honokoak parte hartu zuten: Aginaga Askatu, Gazteak, Aginagako Kultur Elkartea eta Goitarrak.

Sailkapena, berriz, bestelakoa izan zen, zerrenda honetan atzetik aurrera, hain zuzen ere. Aspaldiko urteetan Aginagako Kultur Elkartea nagusi izan den arren, aurtengoan Goitarrak

nagusitu dira, askoren ezustera-ko. Zorionik beroenak, beraz, irabazleei.

Baina aurtengoan aipamen berezia Gazteak taldeak merezi du. Iaz ere parte hartu zuten baina aurten askoz ere txuku-



Maria Angeles Arruti



nago ibili dira eta garaipena lortu ez arren, zorionak eman behar hainbeste saiatu den talde gazteari. Beste taldeen esperientzia eta eskarmentua falta zaie hauei, baina gogo eta ilusioa soberan dute.

Bestetik San Praixku egunean meza nagusira jende asko inguratu zen eta elizkizun polita izan genuen Lizaso zaharra eta Patxi Etxeberria bertsolariekin.

Eta ezin aipatu gabe utzi herriko emakumeek beren eskulanekin egindako erakusketa aurtengo San Praixkuetan. Erakusketa benetan polita izan da, auzoan "artista" ugari dugunaren seinale.

ZUBIETA

kilometroak 78 Zubietan

Aurten, ikastolen aldeko Kilometroak festaren 24. edizioa ospatu da Azpeitian, eta nahiz eta eguraldiak lagundu ez, oso arrakastatsua izan zen euskara eta ikastolen festa, jendetza ugari bildu baitzen.

Atal honetan 1978an Zubietan ospatu zen Kilometroen 2.edizioa ekarri nahi dut gogorra. Hasi berria zen orain hain ezaguna egiten zaigun festa hau, izan ere, Beasainen ospatu baitzen lehenengo edizioa 1977an, eta hurrengo urtean, Zubietan egitea pentsatu zuten.

Zirkuituak sei kilometroko luzera zuen, Hipodromo aldetik hasita, Etxeberritik Irigoien aldera jiraz eta berriz ere Hipodromo aldera abiatuz, plazatik igaroz.

Bildutako dirua, Axular, Bilintx eta Ibai ikastolentzat izan zen, eta orduan ere, oso giro txarra

izan genuen, batez ere goiz partean. Joxe Ramon Zubimendik "Zubieta, mila urteko herria" liburuan agertzen duenez, hainbat pertsonaia ezagun izan zen Zubietan, hala nola: Iturengo ttuntturroak, Joxe Migel Barandiaran, Nestor Basterretxea, Koldo Mitxelena, Joseba Elozegi eta Realeko jokariak ere, bertan omen ziren.

Festa animatzeko txistulariak, dultzaineroak...hurbildu zitzaizkigun eguraldi beltzari aurre egiteko asmotan eta jende ugari bildu zen ibilbidean zehar. Ea ba egunen batean berriz ere festa hau gure herrira ekartzeko aukera dugun. Hala bedi.

Mikel Bengoetxea



Gezurrezko salaketak

Pasa den irailaren 14an Gara egunkarian Patxi Segurola Maioz usurbildarraren abokatuak nire aurka egindako salaketa oker eta larriak direla-eta, zera argitu nahi dut:

1. Nire etxean atxilotu ninduten Goardia Zibilek 1994ko ekainaren 5ean. Nirekin batera beste 15 pertsona atxilotu zituzten, guztiak Lege Antiterrorista eta banda armatuari laguntza ematearen izenpean, eta Goardia Zibilaren eskupetan isolaturik bostb egunean egon nintzen.

Nire atxiloketa isolatuan zehar tratu txar fisikoak jasan nituen, eta ondorioz psikologikoak, argi gertatuz (ezagutu nahi dituen orrentzat) azterketa egin ninduten auzitegi-medikuen parteetan, non sumarioan dauden. Gainera nire bortxakeria arrastoak erakusten dituen parte medikuen fotokopiak ere agertu ziren Lopez Agudin jaunak idatzitako "En el laberinto de Interior" liburuan. Carabanchela iritsi eta egin zidaten presoaren karneteko argazkia ere erakutsiko nuke; bertan nire egoera fisikoa ikusten den.

Hau kontatzen dut egun hartan gure 16 atxiloketen historia ezagutzen ez duenarentzat kokatzen joan dadin, baina edozein kasutan edonork frogatzea dezake benetan egia ezagutu nahi badu.

2. Hain modu <<konbentzagarriren>> aurrean, ETako militanteek amore eman dute <<aitortuz>> eta organizazioarekin zerikusirik ez duten errugabeak inplikatu dituzte. Modu beretsuan nire konfidantza zuten pertsonak salatzen zuten nire partaidetza ETarekin, nire atxiloketa (eta 15 gehiagorenak) eraginez, eta modu berean, aipatu nuen Segurola Maioz jauna

kolaboratzaile gisa isolaturik nengoen bosgarren egunean. Entzun nahi zutena.

3. Gezurra, sasikoa eta aber-tzaleen aurkakoa da ni salatzea Segurola jaunaren emaztea kolaboratzaile gisa inplikatu nuela. Sekula ez da nire ahotik hitzik atera bere emazteari buruz. Sekula. Ulertzen dut bere atxiloketa Segurola Maioz jaunaren ihesak eragin zuela gure (16) atxiloketez jabetu zenean.

4. Galdetu behar genukeena da, Patxi Segurola jauna, nork salatu ninduen ni eta aldi berean nirekin atxilotutako beste hamabostak, zu aitortzeaz gain; nahiz eta ihes egitea lortu zenuen, zure emaztearen atxiloketa eraginez ziuraski.

Ulertu nahi duenarentzat, honek adierazten du 16 atxilotuak ezer esan baino baino lehenago, Goardia Zibilak ezagutzen zuela Patxi Segurola edo/eta bere emaztearen partehartzea.

Ezagutu dudan batek, bere identitatea sumarioan agertzen delako, (nahiz eta Segurola jaunaren abokatuak ez duen itxuraz irakurri nahi izan) ETako kolaboratzaile eta partaide adierazi zigun izenpetzen duen honi, gainerako atxilotuei eta Segurola berari. Bistan denez historia ez da nirekin hasten.

Bizi ditugun garaiak behartutako zuhurtziaz, bere familiari eta inguruari (oso maite ditut) eragin niezaiokkeen atsekabea eta nahigabeagatik, nire hezur eta haragitan ezagutu behar izan ditudanak Gara egunkarian irailaren 14an agertutako gezurrengatik, izen hori isilean gordeko dut, Segurola jauna babesten duen abokatuak dakien bezala.

5. Aipatu oharrean fede txarrez

esaten duenez <<Argi ikusi da bi urte geroago Gorriti lasai asko atera zela espetxetik, bere adierazpenek inplikazio zituenez gero...>> zuzendu nahi dut 3 urte eta 4 hilabetez egon nintzela erregimen itxian, 97ko irailaz geroztik erdiaskatasunezko erregimenean egonik (3.gradua). Presondegiko legeria ezagutzen ez duenarentzat, azaldu nahi dut aurreko Kode Penalak aukera ematen zuela presoaren eskubide gisa, penak luditzeke eta presondegian hain-tzat hartzen zen.

Nire pertsonarekin zerikusirik ez duen legedi espainiarrak zigortu ninduen, zeinarekin ez natorren bat euskaldun naizenez gero eta horregatik erabili nuen zigortu ninduten legeria bera, nire mesederako. Niri bakarrik doakidan zerbaite da eta inori kalterik egiten ez diona.

Nire pertsonarekin zerikusirik ez duen legedi espainiarrak zigortu ninduen; honekin ez natorren bat euskaldun naizenez gero, eta horregatik erabili nuen zigortu ninduten legeria bera, nire mesederako. Niri bakarrik doakidan zerbaite da eta inori kalterik egiten ez diona. Nire irteera erregimen itxitik (gaur egun preso bat izaten jarraitzen dut) ez zen inondik ere inolako <<damutasuni>> esker izan, horregatik ulertzen bada pertsonen salaketa, espetxetik lehenago ateratzeko. Nire egoera (hirugarren gradua) ulertzeko erraza da: nire 3 urte eta 4 hilabete gehi kartzelan luditzeak nire lanagatik nahikoa izan direlako da. Bidezko, aske eta bakarkako aukera da, sekula ausartu ez eta indarra mingainean duen inork zalantzan jar ez diezakedana.

Luis Gorriti




HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Tel. 943 36 02 17



Euskal presoak etsera!



**TXIRIBOGA
TABERNA**

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

“Urbil” euskararik ez, iruzurra bai

Ez dakigu Grupo Eroskikoek, herrian jarri aurretik, gure Udaltzatza osatzen duen jendeari zer agindu ote zioten. Erdara hutssez funtzionatu eta iruzurra egingo zutela, behinik behin, ez zioten aginduko, noski.

Euskararen gabezia beste biz-pairutan salatu izan dugu, alferrik salatu, izan ere, horrelaxe segitzen duelako Urbilek. Orain datorena ez da hura baino larriagoa, ez eta arinagoa ere: beste akats bat da, enpresa horren bidean.

Kontua da txorizo-klase bat erosi eta ordaindu duzula, baina ez dakizu zein diren produktu horren osagaiak, paketeak dituen bi etiketak (espainolez bakarrik, Eroskiren ohiko jokabide-

an) ia erabat ezberdinak direlako.

Inork gaiztakeria leporatu nahi baldin badigu, jakin beza ez dugula iruzur hori agertzen duen pakete bakarra hartu: dozenaka ale zeuden (egongo dira oraindik) horrelakoak.

Ugarienetik urrienera agertzen dira osagaiak etiketan. Beraz, lehen tokian azaltzen dena da osagai nagusia: bataren arabera, txerri-giharra; bestearen arabera, urdaia. Etiketa batek behikia aipatzen du, besteak txerrikia. Eta abar, eta abar. Pisuak eta prezioak ere, ezberdin.

Enpresa serioa ote dugu Eroski hori? Horrelako produktuak salduz

kentzen digu dirua? Erreferenduma berriro egingo balitz, usurbildarrak Urbil jartzearen aldeko botoa emango al luke? Horretarako nahi dute gure konfidantza eskripulu gutxiko negoziante horiek?

Bertako baserritarren produktuei muzin eginda, Urbilek kasa-kristoko berdura eta frutak saltzen dituela ere azalduko dugu hurrengo batean. Argi ibili, broma ez da-eta.

“E-mail” kontuak tarteko, aurreko aleko “Zer irizten” atalean Edorta Agirreren okerreko testua jarri genuen. Hauxe duzue zuzeneko testua, argazki hari zegokiona hain zuzen ere. Oraingo hau ere barkatuko diguzuelakoan...


Yoko-Garbi elkartea

Noaia! aldizkariko 95.alean argitaratu eta 20 bazkidek sinaturiko Yoko-Garbi elkarteari buruzko idatziaren azalpena:

Yoko-Garbi elkarteak 124 bazkide ditu. Bere funtzionamendu arau propioak ditu eta hauek Estatutoetan, Elkarteko Barne Arautegian eta Elkarteko disziplinazko Arautegian jasotzen dira. Elkarteko funtzionamendu zuzena eta arauen betetzea zainitzen dituen organoak Zuzendaritza Batzordea eta Batzar Orokorra dira. Arau hauek kanpo dauden gertaera guztiak Zuzendaritza Batzordearekin kontsultatu behar dira, 20 bazkidek egin ez dutena.

Zuzendaritza batzordeak amaitu-tzat ematen du bertatik kanporatua izan den arazoa.

Yoko Garbiko Zuzendaritza Batzordea



Coca Cola-ren iragarki berri bat grabatzen ibili direla zabaldu da herrian. Egia ote? Guk behintzat argazkien agertzen den moduan aurkitu genuen Coca Cola botila hori. Hutsik zegoen, bai, baina ez zuen birziklatzeko ontzian sartu nahi. Bertara sartzeko beldurra ote? Batek daki. Hala ere beste botila gehien modura bukatu zuen honek ere: birziklatzeko ontzian, noski.

SERIGRAFIA TANPOGRAFIA
LOSU
Ugaldea poligonoa 36 - 2^a Esk
Usurbil - Gipuzkoa
37 19 54

**INDYSTRIA ET
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA**



Kima
MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

**KALEZARRA
KARROZERIA**



Txapa konpontzea eta pintatzea
Bankada unibertsala

Ugaldea industrialdea, 36
Tel: 37 36 09



Hego haizerik ez aurtengo San Praixku jaietan

Hego haizea behin baino gehiagotan aipatu genuen aurreko alean, baina egia esan aurten kale egin du. Euria izan zen protagonista lehenengo asteburuan, hotza berriz bigarrenean. Hala ere San Praixkuetan giroa bero-bero egon da Aginagan. Haurrek, gazteek nahiz helduek

ondo pasatzeko aukera izan dute behintzat. Sokatira, zezenak, ume-jolasak... aukera zabala benetan. Hala ere izan da lapurretan ibiltzeko aukera izan duenik ere, lehenengo asteburuan megafonia osoa lapurtu baitzuten bertako plaza ingurutik.



Umeek ez zuten batere gaizki pasa urriaren 6an Sebastopoleko titiriteroek ekarritako jokoetan



Aginagako emakumeek egindako eskulanak ikusgai egon dira apaiz etxean



Dira, dira zezenak dira, adar zorrotzak... Aginagako zezen plaza, haizue!

Olatz Altunaren atxiloketak markatutako asteburu luzea

Berri beltz batekin esnatu ginen pasa den urriaren 5ean: Olatz Altuna usurbildarra atxilotuta eramana zuen Polizia Nazionalak Garzon epailearen aginduz. Berria lau haizetara zabaldu zen herrian, eta ez zen beste hizpiderik izan hurrengo egunetan. Berri beltz hori, ordea, erabat argitu zen epaileak askatasunaren truke milioi bat pezetako bermea jarri ziola jakitean.

Desobedientzia zibila bultzatzea leporatuta bederatzi pertsona atxilotu zituen urriaren 5eko goizaldean. Olatz Altuna herritarra zen horietako bat eta bere nahiz gainontzeko atxilotuen askatasuna eskatzeko mobilizazioak izan ziren ondorengo egunetan.

Atxiloketaren egun berean, ostegunean, manifestazio bat egin ondoren, Usurbilgo Ezker Abertzaleak aurkeztutako mozioa onartu zen ostiralean udalean egin zen ezohiko eta presakazko plenoan. EHko zazpi ordezkarien baiezko botuekin. EAKo zinegotziak abstenitu egin ziren, eta PNV nahiz PSOEko ordezkariak ez ziren azaldu. Bertan, zortzi punturen artean, Olatz eta atxilotu



guztien berehalako askatasuna eskatu zen besteak beste. Egun horretan eta larunbatean ere ez zen mobilizaziorik falta izan.

Larunbat arratsaldean, ordea, Garzon epaileak milioi bat ordaintzearen baldintzarekin Olatz aske utziko zueneko berria zabaldu zen herrian. Hala ere, goizeko 2.45ak aldeira arte ez zen Olatz herrira iritsi. Jende ugari bildu zen usurbildarrari ongi-etorria emateko asmotan. Olatz berak ere ez zuen horrelakorik espero. *"Ez nuen bi aldiz pentsatu, baina horrelako zerbait ez nuen espero. Jende ugari zegoen eta ezustean harrapatu ninduen horrek. Pasatako*

momentu hotz horien ondoren horrelako harrera beroa izatea izugarria da".

Olatz Altunari elkartasuna

Azken egun hauetako gertakarien haritik, ondorengo hau adierazi nahi dugu:

.- Lehenik eta behin, gaur egun Noaua! Kultur Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kide den, eta lau urtetan Noaua! aldizkariko zuzendari izandako Olatz Altunari gure elkartasuna adierazi nahi diogu.

.- Bigarrenik, salatu egin nahi ditugu azken egunetako atxiloketak. "Desobedientzia bultzatzearen" aitzakian, euskal kulturaren, hizkuntza beraren eta orohar euskaldun guztien kontrako eraso izan dela uste dugu. Euskaraz lan egitea eta bizitza erabaki dugunok ez al dugu horretarako eskubiderik izango hemendik aurrera?

.- Eta hirugarrenik, datozen hilabeteetan ere, gure laguntza eta babesa izango duela adierazi nahi diogu Olatz Altunari.

Noaua! Kultur Elkarteko Zuzendaritza batzordea



Olatz Altuna: "Bidegabekeria hutsa da honegatik jendea espetxeratzea"

Lagunak, familiak, deiak... aspertzeko denborarik ez zuten Olatz Altunak pasa den igandean. Hiru eguneko amets gaiztoa pasa ondoren, gertatutakoaren berri eman digu. Milioi bateko fidantza ordaindu ondoren gure artean dugu berriz, baina astero epaitegira joateaz gain, deitzen dioten bakoitzean bide bera hartu beharko du.

Konta iezaguzu nola bizi izan zenuen atxiloketa.

Ostegun goizean 1.30ak aldera, lo geundenean noski, izugarritzko burrunda entzun genuen. Builaka ari ziren, "Policia, habran o tiramos la puerta" horrelakoak entzuten ziren. Sarrera zakarra izan zen oso. Polizia Nazionalek mazo antzeko bat zuten esku artean eta atea irekitzean oso gogor sartu ziren. Mikeli fusila buruan jarri eta lurrera bota zuten. Nik haseran amets gaizto batean nengoela uste nuen. Nire logelara etorri, jaiki-arazi, atxilotuta nengoela esan eta Garzonen atxiloketa autoa erakutsi zidaten. Hor irakurri ahal izan nuen atxiloketa Joxemi Zumalabe fundazioarekin lotzen zutela.

Zerbait eraman al zuten etxetik?

Bi orduz goitik behera miatu zuten etxea, eta ordenagailuaren disko gogorra, laneko dokumentuak, fundazioko papel batzuk eta Italiako lagun batzuen eskutitz eta panfleto batzuk eraman zituzten.

Zer gertatu zen ondorengo orduetan?

Eskuburdinak jarrita eta jertse bat buruan nuela atera ninduten etxetik. Hemendik Amarako Gobernu Zibilera joan, forenseak begiratu eta datuak hartu zizkidaten jarraian zuzenean Madril aldera ateratzeko. Han komisaldegi batean sartu eta inkomunikatuta nengoela esan zidaten. Soinean nituen arropekin bakarrik, erlojua ere kendu egin zidaten, 5-6 m²ko zelda batean sartu ninduten.

Beste atxiloturen batekin eraman al zintuzten Madrila?

Ez, bakarrik. Furgoneta batzuk ikusi nituen Amaran, baina ez nenkien beste norbaitzuk atxilotu zituzten ala ez. Nirekin bi polizia zuden kotxean, bat gidatzen zihoan eta bestea nire ondoan zegoen. Nik, hala ere, eskuburdinak jarrita nituen eta zenbait momentutan burua tapatzen zidaten. Hala ere bidaiak lasaia izan zen, eta bidean zenbait momentutan hirurok hitz eginez joan ginen.

Zertaz hitz egin zenuen?

Nik, egiten ari zirena bidegabekeria zela, azken batean abertzalea den jende guztia atxilotzearekin ez dutela ezer lortuko esaten nien. Beraietako batek arazoa senitarteko ingurunea eta ikastoletan zegoela esaten zuen. "Espainiako gazte batek kirola eta neska bat edo mutil bat ligatzea dauka buruan. Euskaldunak ez dakit zer daukauen buruan". Gazte bat ez bada kirola edo familiaz arduratzen arriskutsua da; horixe da beraien teoria. Horretaz gain behin baino gehiagotan esan zidaten: "Zein herri polita den Usurbil ezta? Zer garbia dagoen ezta? Kartel ugari ikusten dira ezta?".

Madrilgo komisarian denbora dexente egin zenuen ezta?

Bizi izandudan isolamendu egoera izan da gogorrena. Denboraren zentzua galduta egon naiz



Ez dakit zenbat denbora egin nuen. Ordu pila bat pasa ziren, baina ni erabat isolatuta nengoan, eta ez nuen ordularirik. Otorduak ziren orientatzeko modu bakarra. Hori bai, janaria nazkargarria zen komisarian, ezin zen ezer jan. Ostiral eguerdi bitartean eduki ninduten han gero Entzutegi Nazionaleko kalabozotara eramateko. Hemengo zelda txikiagoa eta zikinagoa zen, baina janaria hobea zen. Atxilotutakoak geunden bertan, eta zenbat eta zeintzuk ginen jakiteko euskal abestiak txistuka abesten hasi ginen. Nik "Usurbilgo elizaren horma" abestu nuen hor nengoela jakin zezaten. Egun horretan bost atxilotuk deklaratu zuten, dagoeneko banekien zenbat ginen, eta guk deklaratu ez genuenez goizeko 2.00etan Soto del Real-eko espetxera eraman ninduten.

Hemen denbora asko egon al zinen?

Ez, goizeko ordubiak aldera sartu eta zortzirak aldera berriz ere Entzutegira eraman ninduten. Espetxera sartzerakoan erropak

kendu, dutxatu, datuak eman, hatz markak hartu eta aislamenduko zelda batean sartu ninduten, hemen bost ordu pasa eta berri ere Entzutegira eramateko. Larunbatean ni izan nintzen deklaratzeko azkena.

Zer zebilkizun buruan bueltaka atxilotu ondoren?

Ni aluzinatuta nengoen. Ezer ulertzen ez nuen amets gaizto bat zen. Autoaren arabera Joxemi Zumalabe fundazioan lan egiteagatik atxilotu ninduten eta fundazio hau ETaren estrategia politikoa barruan dagoen erakunde modura lotzen zuten. Erabat absurdoa zen dena. Haseratik poliziaren jarrera nahikoa lasaia zela ikustekak, ordea, lasaitu egin ninduen.

Atxilotu aurretik zure berri ondo omen zekiten poliziek.

Beraiek egiten zituzten komentarioengatik izugarrizko jarraipena egin didatela konturatu naiz, bai lanean eta baita Usurbilen ere. Nire gurasoen etxea non zegoen bazekiten, nire iloba zein zen bazekiten... Duela 10 egun Getxon hitzaldi bat eman nuen eta UEUK utzitako ordenadore portatil bat eta kanoi batekin ibili nintzen aste horretan. Etxea miazten zen-

biltzanean nire ordenadore portatila non nuen galdetu zidaten. Horrekin paranoia haundia zuten.

Nahiz eta epailearen aurretik ez pasa, Soto del Realeko espetxera eramán zintuzten. Zer pentsatu zenuen momentu hartan?

Momentu hortan espetxean sartuko nindutela mentalizatu nintzen. Fundazioko langileak bi ginen eta bat espetxean sartu zuten, beste bi ere bai... Nere burua espetxean ikusten nuen eta denbora horretan doktoredutza egingo nuela pentsatu nuen. Mentalizazio horrek asko lagundu zidan, eta lasaia joan nintzen Garzonen aurrera.

Garzonen aurrean deklaratu zenuen ezta?

Inkomunikazioa kendua nuen dagoeneko eta nire abokatuarekin ordubetez egon nintzen bere despatxoan. Galdeketa modukoa izan zen eta bere jarrera oso "prepotentea" izan zen. Hasieran gaur egun zer lan egiten nuen, fundazioan nire lana zein zen... horrelako galderak egin zizkidan. Ondoren, berri, fundazioak ETarekin zer lotura nuen, ba al nekien Joxe Jabier Arizkuren "Kantauri"k idatzi bat egin zuela... horrelakoak galdetu zizkidan.

Aske geldituko zinela noiz jakin zenuen?

Deklarazioa bukatzerakoan fiskalak ETaren laguntzaile izatea leporatu zidan, baina fundazioko lana abuztuan utzi nuenez milioi bateko fidantzapean aske gelditzeko aukera izateko eskaera egin zion Garzoni, eta honek fiskalak eskatutakoa onartzen duenez... Hala ere, ez ninduten berehala aske utzi. Arratsaldeko hiruretan banekien erabakia zein zen, baina gaueko bederatziak aldera atera nintzen kalea. Hori izan zen unerik txarrenetako bat; aske gelditu ondoren fidantza

ordaintzeko hiru egun nituen, baina ez ninduten berehalakoan atera. Soto del Real espetxera eramán ninduten, han aske uzteko, baina hemen beste ordubete egon behar izan nuen. Datuak eman, berri ere hatz markak hartu... buila ugari egin nuen.

Zer dela eta izan dira atxiloteta hauek?

Herri mugimenduaren arteko ezagutza eta elkarlana lantzea da Joxemi Zumalabe fundazioaren helburu nagusia. Horretarako, iazko maiatzean herri mugimenduaren topagunea antolatu zuen beste talde askorekin batera. Topagune horretan talde ezberdinen idatzi pila bat zeuden, eta tartean desobedientziaren inguruko lan bat ere bai. Joxe Jabier Arizkuren "Kantauri" ETako militanteari desobedientziari buruzko zerbait hartu ziotela dirudi, eta Garzonek dio ETaren strategiaren barruan dagoela fundazioa, txosten horretan agertzen dena praktikara eramateko. Desobedientzia delitutzat hartu du Garzonek; nahiz eta era sozial batean eta paketsuan desobedientzia aurrera eramán, berak inkostituzionaltzat hartu ditu horrelako mugimenduak. Beraz, fundazioak egiten duena ETak esandako zerbait dela dio. Erabat bidegabekoa da honegatik jendea espetxeratzea, izugarrizko amorrua ematen dit horrek.

Zer egin zen ba herri mugimenduen topagune horietan?

Taldeak beraien artean ezagutu eta bakoitzak egiten duen horretan gauzak hobetzeko da topagune hau. Dirulaguntzak nola eskatu, jendeak bilertan nola parte hartu dezakeen...gai ugari lantzen dira, eta tartean desobedientzia. Hortik etorri da muntaia hau dena. Desobedientzia zibilaren testu hori egin duenak bere burua inkulpatu badu ere, bost lagun espetxean sartu dituzte. Hortik atera kontuak.

Zure kasuan, zer zigor bete behar duzu orain?

Milioi bateko fidantza ordaindu ondoren, astero Donostiako epaitegira joan beharra daukat. Horrez gain, epaiketara edo beste zerbaitetara deitzen banauter joan beharra daukat.

Josu Aranberri





Urriaren 11ean XVIII. Eskuz Pelota txapelketako azken partidua

Urtez-urte gero eta maila hobegoa hartzen ari da herriko esku pelota txapelketa. Jubenil eta afizionatu mailetako punta-puntako pelotariak ikusi ahal izan ditugu hilabete hauetan, eta finalerdietako partidak ikusita ziur ikuskizun polita ikusi ahal izango dugula datorren urriaren 11n gaueko 22.00etan hasita herriko frontoian.

96 bikotek ekin zioten txapelketari, baina pixkanaka-pixkanaka bidean gelditu dira gehienak. Pasa den urriaren 7 eta 8an finalerdiak jokatu ondoren, baditugu azken partidak jokatu dituzten bikoteak.

Jubenil mailan Azpiroz-Tabar nafarrak eta Erroizena (Hernani)- Argote (Zarautz) izango dira aurrez aurre. Lehenengoek 22-14 irabazi zieten Zabala eta Oteizari eta bigarrenak



Duela bi urteko final bera izango da afizionatuetan: Errasti anaiak Astigarraga- Eizagirren aurka

Mendizabal eta Gurrutxaga zaldibiarrek gainditzeko nahikoa lan izan zuten, 22-21 nagusitu baitziren.

Afizionatu mailakoak ere pelota partida ikusgarriak izan ziren. Arretxabaletako Errasti anaiak 22-16 irabazi zieten Solozabal eta Parro gasteiztarrei. Beste finalurrekoan, berriz, Astigarraga-Eizagirre

Azpeitiarrak lotu zuten finale-rako txartela ldiakenez-Erostarberri 22-19 gailendu ostean.

Beraz, hauek izango dira urriaren 11n jokatu diren azken partidak:

Jubenilak

Azpiroz-Tabar /Erroizena-Argote

Afizionatuak

Errasti anaiak/Astigarraga-Eizagirre

Joseba Zubeldia profesional mailara

Denboraldia hasieran afizionatu mailan arituko bada ere, abuztutik aurrera Joseba Zubeldia usurbildarrak profesionala eta saltoa emateko aukera izango duela jakinarazi zuen Julian Gorospe Euskaltel-Euskadiko zuzendariak profesionala pasako diren beste hiru txirindulariren aurkezpenean. Berak esandakoaren arabera Josebak arden erakutsi bilakaerari segitzen badio, izango du aukerarik. Izan ere, denboraldi amaiera bikaina eman dio arden Urdaigakoak. Elgoibarren laisterketa bat irabazteaz gain, Gipuzkoako txapelketan bigarren izan zen.



XABIER EDARITEGIA

**Etor zaitez,
eta dasta itzazu
Goierriko produktuak**

X Idiazabal gazta
X Beasaingo odolkiak...



MAHUKA

**Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu**

Etxebeste kalea, 3- III. 943 36 11 06

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



ESTRELLA
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Zubikurrena, 10
Tlf. 943 37 18 07- Fax.: 943 37 63 41

Manuel Borda eta Felisa Izagirre, 60 urteko ezkonbidaia

Pasa den urriaren 10a egun garrantzitsua izan zen Manuel Borda eta Felisa Izagirrerentzat, ezkondu zirenetik 60 urte bete baitziren. Manuelek 91 urte ditu eta Felisak 85, eta orduztik denbora asko pasa den arren, biak ondo gogoan dute non eta nola ezagutu eta maitemindu ziren. Gaur egun ezkontzak bai, baina banaketak eta dibortzioak ere ugari dira. Zein ote da akatsa? Non ote dago pertsona berarekin hainbeste urtetan irauteko sekretua? Manuel eta Felisak badute honen inguruan zeresanik, esperientzia duenaren ahotik entzungo dugu, beraz, maitasunaren errezeta "magikoa".



Laguntasunetik...

Manuel izatez Altzan jaioa da eta 5 urte zituenean etorri zen Usurbila bizitzera. Felisa, berriz, Usasku baserrian jaioa da. Txiki-txikitatik ezagutzen dute elkar, eskolara ere elkarrekin joan baitziren. Gainera Usurbil herri txikia zen garai hartan eta denak ezagutzen zuten elkar. Gerora, hain ume ez zirenean, Felisa Manuelen etxera maiz joaten zen josten ikastera. Manuelen arreba jostuna zen eta jostundegia zuen etxean. Jolaseko lagun ziren haiak, ordea, ez zuten pentsatu ere egiten gerora senar-emazte izango zirenik.



maitasunera

Baina denbora aurrera joan ahala, neskatxa hura emakume polita bihurtu zen eta Manuel ere gizon ederra omen zen, hala ikusten zuten, behinik behin, Felisaren begiek. Igandetako maitasuna izan zen Manuel eta Felisarena, igande goizetan Manuel tren geltokira joaten zen Felisaren bila, ondo gogoratzen ditu eguerdi haiak Felisak, "oraindik gogoratzen naiz nola etorri zen txamarra kuadroan batekin, mutil pottolo-pottoloa zen Manuel eta oraindik ere hala da".

Manuelek berriz gogoan ditu Felisaren begiak, "polita ikusten nuen nik neskatxa hura, begi ederrak zituen eta beti bazuen zer esatekorik. Eguerdi partean bila joan eta arratsalderako tratua egiten genuen, halaxe hasi ginen elkarrekin eta halaxe sortu zen amodioa. Niri Felisa gustatu eta nire bizimodurako ederra zela pentsatu nuen". Urtebetez ibili ziren elkarrekin eta 1940ko urriaren 10ean ezkondu ziren San Salvatore elizan. Dagoeneko andre-gizonak ziren eta 60 urte beranduago halaxe diraute, elkarrekin eta maiteminduta.



Gaurko Gazteak zer?

Manuel: " Horixe ez zait gustatzen, gaurko gazteak pentsatu gabe elkar-tzen dira. Gero, 2 edo 3 urtetan elka-rrekin egon eta pare bat txiki ekartzen dituztenean akabo. Bat alde batera eta bestea bestera eta umeak tarte-an, ez amarik ez aitarik ez dutela. Zein zigortzen da? haurra, batere errurik gabe, gainera. Gainera, paperik ez bada zikintzen, tarte horretan mugarik ez dago, dena libre da. Gauzak behar diren bezala egin behar dira, zibiletik bada ere agiri batzuk egin eta haserretzen badira ere, konponbide-ren bat izango da".



Nola jasan daiteke gizon bat edo emakume bat 60 urtetan?

Felisa: " Askok halaxe galdetzen dit. Eta zer pentsa-tzen dute ba? gizon batekin nazkatu eta banandu egin zaitezke, ondo. Haseran harekin gozo-gozo egongo zara, ondo. Baina harekin ere aspertu eta gero beste baten gogoa izango dezu. Eta harek zer esango dizu? Non da emakume horren birlintasuna?. Halaxe esan nion behin emakume bati eta baita berak erantzun ere, eta nola dakit nik gizona nola dagoen?".


Manuel: " Gaur egun halaxe ibiltzen dira, banandu eta berriz elkartu eta...baina beti lehenengo maitasu-nak gehiago tiratzen du, gerora ere. Ikusten dira banandu eta berriz bueltatu nahi dutenak. Lehenen-go maitasun hori berezia da".



Orain dela 60 urte bezalaxe

Halaxe daude Manuel eta Felisa, ezkondu berritan bezala, maiteminduta eta gustura bata bestearekin, Manuelek esaten duen modura, "bata besteari zer egin ez dakigula gaude gu". Eta nola ulertu bizitza bata bestea gabe? galdera entzutearekin batera begirada lanbro-tzen zaie biei, "etorriko dela badakigu, bidean daukagu baina gogoratu ere ez dut egin nahi" dio Felisak.

Datorren urriaren 14an ospatuko dute beren ezkontzaren 60. urtemuga, lehen-dabizi mezetara eta gero bapo afaltzera joango dira familia guztiarekin. Ondo pasa eta urte askoan!



Asko igurtzitako umeak

Felisa: " Lau seme-alaba izan ditugu, bi pareja.

Ondo erakutsi ditugu, gure pobrezian ikasketak eman dizkiegu eta asko igurtzitako umeak ditut, bai seme-alabak eta baita bilobak ere. Batzuentzat ama maitea naiz eta besteentzat amona maitea. Seme-alabak ere mimatu egin behar dira, orain, gehien behar ditugunean, ondoan izateko".

Manuel: " Bat Donostian bizi da, garraiolaria da eta jaiero, hemen baldin bada, bazkaltzera hona etortzen da. Irunen bizi da beste alaba eta harek ere, ahal duenean, hona buelta egiten du. Garrantzitsua da seme-alabak goxatzea, hauen maitasuna ere asko behar baitugu guk. Beraiek poza ematen digute guri eta guk beraiei ere poza ematen diegu".

Maindirepean dena goxo

Felisa: " Haserretu? gu ere haserretzen gara, baina maitasuna baldin badago maindire azpian dena goxo. Gainera, bik ez dute errita egiten batek nahi ez badu".

Manuel: " Andrearekin sekula ezer ez duela esaten duena gezurretan ari da. Haserreak izan behar dira, gu ere denean ados ez gaude. Zailena haserre horiek konpontzen jakitea da, batek hau eta besteak hura esaten duela? ondo, baina batzuetan ixiltzen ere jakin behar da, batek eta besteak. Hori bai haserretu eta hurrengo egunean beti bezala, goxo-goxo".



Errezeta "magikoa"

Manuel: " Pertsona batekin hainbeste urtetan egoteko sekretua erraza da: pazientzia, errespetua eta maitasuna. Horixe da dena".

Felisa: "Mezetara joan eta apaizak elkarri bakea emateko eskatzen duenean, nik guztiei bakea eta maitasuna ematen diet eta hori bakoitzak etxetik hasi behar du. Elkarri eramaten jakin beharra dago".

Zer gertatzen da gaur egungo bikoteekin?

Felisa: "Andreak eta gizonak lan egitea da dibortzioen arrazoi nagusia. Lanetik bueltan etorri eta gizona egunkaria hartu eta sofan botata egoten da. Emakumeak, berriz, gizonak bezainbeste lan egin arren, etxeko lan guztiak egin behar izaten ditu, erropa garbitu, janaria prestatu.... Gainera, bata etxeko-lanak egiten ari den bitartean, bestea tontontonto telebistari begira egoten da eta ez dute ia hitz egiten. Guk betidanik baserrian lan egin dugu, baratzen lan asko eginak gara. Goizean Manuel baratza joaten zen eta ni etxeko lanak egiten geratzen nintzen. Baina etxeko kontuak bukatzean baratza joaten nintzen eta han ibiltzen ginen egun guztian elkarrekin eta kontu-kontari".



Piper txikiaren inguruko sekretuak bi sukaldariren eskutik

Pasa den irailaren 24an piperra izan zen protagonista nagusia herriko frontoian. Mikel Garmendia eta Manu Piñeiro sukaldariak bederatzi pintxo ezberdin prestatu zituzten, guztira 900 pintxo inguru. Denen harridurarako izan zen pintxo barietate hura, askok eta askok ez baitzuten uste piperrarekin hainbeste pintxo mota egin zitekeenik. Sukaldarien esanetan, "buruari bueltatxo batzuk eman, eta pintxo onak eta politak egin daitezke piperrarekin".

Hala ere, oso leku gutxitan ikusten dira pintxo mota hauek. Izan ere, Euskal Herrian ez baitago ohitura haundirik piper txikiarekin sukaldean lanean aritzeko. Taberna askotan hain ezagunak ditugun piper frijituak edota piperrak antxoarekin baino ez baitira prestatzen. Hori dela eta, bi sukaldariengana jo dugu piper txikiaren inguruko eta Piper Egunean atera zituzten pintxo guzti haien inguruko sekretuak ezagutzera jakinmina pizturik.



Zu usurbildarra ez izanik, nola ikusten duzu Piper Egun bat antolatzea?

Egunik ederrena dela uste dut. Urteen poderioz gainera, jendea geroz eta gehiago erakarriko du.

Mikel Garmendia (Atxega jauregiko sukaldaria)

Manuk aipatzen du piperra oso produktu mugatua dela. Horrela al da?

Tenporadako produktu bat denez, bai mugatua dela. Baina, piper gorriarekin askoz lan gehiago egin daitekeela uste dut, nahiz eta zaila izan. Piper gorriak ez du pikiloko piperrek duten bezalako mamia.

Piperrari ze beste osagai gehituko zenioke?

Antxoarekin batez ere, baina arrai txuriari ere oso ondo dator kio piperra. Piperrak oso usai berezia du, eta honi

piperrak duen bixitasun hori eransten badiogu, plater oso gozoa aterako litzateke.

Piperrak izan al du gorakadarik?

Gorakada nabarmena izan da azken urte hauetan. Duela zazpi urte Gernikako piperrak ia ez ziren jaten, gaur egun, ordea, piperra jatetxetako beste plater bat da. Nik pertsonalki, azken bi urte hauetan asko erabili izan dut piper txikia edozein saltsa prestatzeko, eta lehen esan bezala arraia-ekin ere bai noski.



Edozein urte sasoiatan preparamatu daitezke piperrarekin egindako pintxoak?

Berez bai. Baina, urte sasoi zehatz batetako produktua izanik, hobe da orduan prestatzea. Piperra udaran jan behar

Manuel Piñeiro (Aiala sukaldaritza akademiako irakaslea)

da, produktuak berak ere horrela eskatzen duelako batez ere.

Zer preparatu daiteke piperrarekin?

Produktu guztiak bezalaxe, gauza asko prestatu daitezke. Baina, hemen ez dago ohiturarik. Produktu nahiko mugatua dela uste dut, produktua bera oso gogorra delako. Hau da, beste janariaren batekin konbinatzeko zaila da, horregaitik jendeak ez du bizitza asko korapilatzen.

Hala ere, Piper Egunean bederatzi pintxo ezberdin

atera zenituzten.

Bai, betiko pintxo ez gain, gildak eta piper frijituak, beste konbinazio batzuk egin genituen. Orly pastarekin eta Hojaldrearekin egindakoak adibidez.

Zein izan zen pintxorik arrakastatsuena?

Nik uste dut hojaldrearekin egin genuen pintxoak izan zela arrakastatsuena. Jendeari hojaldrea asko gustatzen zaio eta gainera pintxoak bera ere haundiena zen, eta jendeak normalean pintxo haundienak jateko joera izaten du.



Piperraren inguruko bitxikeriak eta sekretuak eskatzeaz gain, udazkenerako errezeta bana eskatu dizkiegu bi sukaldariei. Hauek dira Manuk eta Mikelek prestatu dizkiguten errezetak; zuen gustokoak izatea espero dugu:



Itsas xapua onttoekin

Osagaiak: (4 pertsonentzat)

- 600gr. xapua
- 200gr. ontto
- baso erdi bat arrai salda
- baso erdi bat nata likiditua
- baso laurdena ardo txuria
- gatza, irina eta olioa

Nola egin:

Xapua xerretan egin eta gatza eta irinarekin pasa. Zartaia sutan jarri olio gutxirekin. Buelta pare bat eman eta gero, dagoeneko egina dagoen onttoa erantsi. Hau egin eta gero, ardo txuria eta arrai salda bota. Sutan pixkat eduki, eta bukatzeko nata bota gaitetik.



Erbi xolomoa aranekin eta kalabaza purearekin

Osagaiak: (4 pertsonentzat)

- 4 erbi xolomo
- 12 aran-paxa
- 8 xerra txingarra
- Haragi salda
- gatza eta piperra
- ardo gorria 3 litro
- 4 tipula
- 2 baratxuri buru
- Erromeroa, bi adaxka
- Ezkaia, (tomillo) bi adaxka
- Piper beltza bi goilarakada

Kalabaza purearentzat:

- 400 gr. kalabaza
- gatza eta gurina

Nola egin:

Erbi xolomoak osorik, hezur eta guzti, marinatzen jarri 24 orduz. Ondoren hezurak kendu erbiari eta zatitu, olio eta gurina daukan kazola batean doratzeko.

Segidan, marinatzen eduki ditugun barazkiak gehitu eta su ertainean eduki 20 minutuz. Marinadako ardoaren 1/3ak gehitu, eta likioaren laurden bat kendu.

Ondoren haragi saldarekin busti eta su baxuan irakiten utzi ordubetez. Guzti irazi eta zukua murriztu saltsa bolumena hartu arte. Jarraian gatza eta piperra bota.

Beste aldetik erbi xolomoak hartu, liburu baten modura ireki eta urdai grasa eta aran-pasez beteko ditugu gatza eta piperra bota. Xolomoak zartagi batean frijitu su indartsuan eta labea topera jarriita bertan sartu. Ondoren 3 zm.ko lodieraz ebaki (haragiaren erdi aldeak gorrixa gelditu behar du).

Kalabaza purea egiteko, kalabazak hartu eta gatza eta gurinez igurtzi ondoren labean sartu 50 minutuz 180 gradutara zilarrezko papelean bilduta. Labetik atera ondoren, mamiarekin purea egin turmix batekin. Azala bota egingo dugu.

Aurkezteko, xolomo zatiak saldarekin eta kalabaza purearekin batera jarri behar dira.



Etxebizitza berriarengatik 14-16 milioi ordaintzeko prest



Bizitzeko lekua gero eta garestiago dagoela gauza jakina da. Alde bate-tik ez dago denentzako adina etxe, eta beste aldetik etxebizitza horien prezioak gero eta garestiagoak dira. Etxe berriko atea-aren giltza aurkitzea gero eta zailagoa da. Usurbilen ere egoera bera topatu dugu.

Herritarren etxebizitzaren eskarera jakin nahian, udalak eskatuta, inkesta bat egin zuen pasa den apirilean Ikertaldeak. 179 kasu aztertu ziren, herriko familia kopurua 1507 ingurukoa izanda, %11,8ko eskaria suposatzen duen horrek. Bestalde, herriko biztanleria kontutan hartuta, herritarren %5,7ak eman du bere iritzia inkesta honetan. Bi behar mota jaso dira: lehen aldiz etxebizitza bat nahi dutenak dira batzuk, elkarrizketatutakoen %74a, eta etxebizitza aldatzekaren eskaria egin dutenak dira besteak, %26a.

Banako pertsonak edo etorkizunean bikote-elkarbizitza osatzeko asmoa dutenek egin dute lehen etxebizitzarako sarreraren beharraren eskaria. Azken finean, gurasoen etxe-

bizitzan bizi diren 20-30 urte bitarteko gazteak dira hauek. Gurasoekiko independientzia lortzea da etxebizitza nahi izatearen arrazoi nagusia (%61), nahiz eta beste batzuk ezkontza edo bikotearekin elkarbizitzaren agertzeko nahia ere azaldu duten (%28).

Aldaketa beharraren kasua adierazi dutenen artean, berriz, hiru dira azpimarratu beharreko arrazoiak: tamai-nuaren desegokitasuna (%36,2) familiaren hedakuntza

**Hiru logela, bi
komun, trastelekua eta
aparkalekua dituen
etxebizitza nahiko
lukete inkestan parte
hartu dutenek**

Ikertaldeak udalarentzat egin zuen inkestak argi eta garbi azaltzen du herrian etxebizitza gosea dagoela. Azken urteetan etxebizitza ugari egin dira, baina hala ere honek ez du herritarren beharra asetu. Denontzat etxebizitzak eginda ere, nola egin aurre gaur egun dauden prezioei?


dela eta, jabetzaren bereganatzea (%27,7) etxebizitza alokairuan izatetik jabetzara pasa nahi dutela alegia, eta azkenik, aurreko arrazoiak baino pisu txikiagoa izanda ere garrantzitsua dena, igogailu gabetia (%14,9).

Kokapenari dagokionez, bai etxebizitza aldatzeko nahi dutenek eta bai lehen etxebizitzan sartu nahi dutenek usurbilen nahi dute etxebizitza. Hala ere, azken hauen %26,8ari berdina zaio herrian gelditu edo beste udalerrira batera joatea. Hori bai, aldatzeko beharra dutenek etxebizitza berria nahiago dute (%59,6) lehen sarrerakoek baino (%51,5). Nahiz eta bi kasuetan berria ala erabilia izan, egoki egonez gero, berdina zaie (%45,2).

Baina ze azalerako etxebizitza eskatzen dute usurbildarrek? Badirudi orain arte egin direnak baino txikiagoak nahi direla. Izan ere, aldaketa beharra azaldu dutenen artean 76-90 m²ak nahi du gehien-goak (%68,1), nahiz eta 60-75 m²ak ere badiren (%19,1). Lehen sarrerako beharra dutenek berriz, azalera gutxiagoko etxebizitza nahiago dute. %53,8ak 76-90 m²koak hartuko lituzke, baina %31,1ak 60-75 m²ak. Hiru logela, bi komun, trastelekua eta aparkalekua dituen etxebizitza nahiko luke inkestan parte hartu dutenek. Hala ere, bi logela eta komun batekoak ere gustoko dituzte, batez ere lehen aldiz etxea nahi dutenek.

Honelako etxebizitzak lortzeko, ordea, arlo ekonomiko garrantzitsua da. Zenbat ordaintzeko prest gaude ametsetan dugun etxebizitza horregatik? Alokairuaren irtenbidea erabat baztertuta gelditzen da bi kasuetan, %90ak baino gehiagok uko egin baitio aukera horri. Jabetzako etxebizitza nahi da gaur egun, alokairu errenta merkeagoa izanda ere oso gutxi hartuko bailukete alokairuaren formula.

Orokorrean 82 m²ko azalera duen etxebizitza batengatik batazbeste ordaindu dezaketen eta ordaintzera prest dau-



den prezio haundiena 15.194.285 pezetara iristen da. Aldaketa beharraren kasuan batazbeste 16.500.000 pezeta ordaintzeko prest leudeke gehienak 84 m²ko etxebizitza batengatik, lehen etxebizitza beharraren kasuan, berriz, batazbeste 14.728.682 pezeta 79 m²ko etxebizitzarengatik. Horretarako hilean 50.000-70.000 pezeta ordaintzeko prest dago %37a eta 70.000-90.000 pezeta, aldiz, %21,7a.

Zenbateko bat ordaintzeko prest egotea gauza bat da, eta ordaindu ahal izatea beste bat. Horretarako elkarrizketatu bakoitzaren diru sarre-
rak aztertu ondoren hona emaitzak: aldaketa beharraren kasuan 171.234 pezetakoa da hileko batazbesteko diru

sarrera garbia eta 178.844ra igotzen da diru sarrera gabeko hiru kasuak kontuan hartu gabe. Lehen sarrera beharrean, berriz, 130.454 pezetakoa da batazbestekoa, 143.500 pezeta diru sarrerak ez dutenak kontuan hartu gabe.

109 etxebizitza huts daude herrian

Etxebizitzen eskaeraren inguruko inkesta egiteaz gain, herriko etxebizitza hutsen azterketa ere egin du Ikertaldeak. Izan ere, etxebizitzen eskasia dagoela esaten da askotan, baina inor bizi ez diren etxebizitzak ere ugari dira. Usurbilen adibidez 109 etxebizitza huts daude Ikertaldeak egin duen azterketaren arabera. Horietatik 101 partikularrenak dira, eta zortzi jabetza publikokoak. 109 etxebizitza horiek herrian dauden 1507 etxebizitzen %7,2a osatzen dute.

Etxebizitza hutsaren banaketari begiratzen badiogu gehien-goak Santuenea auzoan pilatzen direla ikus dezakegu (16 etxebizitza). Kale Nagusia, San Esteban auzoa eta Aginaga ere ez dira atzera gelditzen, bakoitzean 9 etxebizitza huts baitaude.

Josu Aranberri





Unai Loidi Leunda

- Bertsolaria
- 24 urte
- Harakina

Bai ote oinarririk gazte bizitzeak?

Gazte gera gazte! Noiz arte? Badirudi geuren burutan urteek ez dutela gaztea zahartzen, beharrak baizik!: lehendabizi andre-gaia, ondoren lana eta andregaiaren lana (nola ez pa!). Auxtin bihar zortzietako aterako naiz, etorriko ahal zera bila?- Nola ez pa!-Eta hurrengo egunean Auxtin lanetik atera 7:30-etan, lagunengana hurbilduz zerbeza batzuk hartzen, solasaldi kutunean, gazteari zuzendutako jokuren baten arian, zer kontatu eta zer ez... Zortzirak hamar gutxi. - Bueno neskaren bila niek eta bihar arte! - Itsointzak pixkatian mote.- Ez, ez, bihar arte!.- Lagunak.- Oaine baziok lerdia diola! Bai fuerte emantziok honek e! Pasako zaiok, baino, atsua earra zio! Gustatu in behar ! - Zorionez Auxtin hutsunea bere kontura bete liteke.

Gazte baten lehendabiziko ekilibrio mentala amodiozko maitemina proban jartzen du: Ohituraren aldaketa, lagunminarekiko etetea, norbere ezkutuko bizipoxa (honetaz hitzik ere atera ez daitekenez, askotan hizketaldira-ko traba) eta emozioaren suminak axolagabekeria ere badu: Lagun artean, herriko festen asteburuari begira. - Anmistiako tabernan esku bat botatzeko 4 orduko lana eskaini ziguek larunbat gaueko gure kuadrila, hartuko ahal deu?- Auxtinek herriare pixkat lagundu laundu beharko ziou! Ze ordutegi da? - 12-tatik 4-ta, ta nik pentsatu dit bi talde ein, lau ta lau, lau ordubik arte ta lau ordubitatik aurrera. - Auxtinek, nik ordubitatik lauta ingoit, e, gu lauok ingoiu! - Bale, bale, bale. - Larunbata iritsi da eta Auxtin ez da azaldu, eta ez da azalduko. Gaueko 2 .30 jo dute-

nian, Anmistiako tabernan bere lagunak. - Auxtin ostioi, gosia pasaula emateik 20 urtian. Beak osatu laukotia ta kaka, oaintxe etziok beakin ezertako kontatzeik! - Lagunak ohartu dira Auxtini gertatzen zainaz, baina Auxtin bera konturatuko al da? Ez, oraindik ez, nahiz berezko susmorik izan. Biharamunean irrifartsu azalduko da kafe garaian eta "kuadrila" koren bati edo honela esango dio, beti irrifartsu: -Ze atzo la ostia ezta, lan puskat ingo zenuen. Nik juteko asmua nin baino neskak buru guztik beotu zitxakian eta bakik! - Bai, bai aitzakia atsui jarri. - Hi atsuare ez dek, gaina hiri ze ostia inporta zaik...

Gazte atsegin eta betiko lagun bezala azaldu beharrean, egozkortuta 80 urteko aitona baino txotxolotuago. Honen aurrean ihesbidea da teknikarik errezena: " neskarengana joan" burua lausotu, bihotza xamurtu eta aurre egin beharreko errealtateak ezkutatu : nor ibiltzen da ba gustora hasarre dagoeneana , nahiz eta honek ez duen esan nahi haserretu behar ez denikan beharrezkoa denean. Haserreak behintzat bi gauza positibo badi-tu, oso adierazgarria sikolojikoki: bata - Betebeharren arabera zama kenketa bat bailitzen, barruko arintasuna. Bestea garbitasuna, gauzak ondo eta zuzen egin nahi direnaren ziurtasuna. Horrexegatik erabiltzen da askotan haserrea norbere komenientzira, zaborkeria ezkutatzeko eta abar ...

Dena den, guztiok ohartzen edo jausten gara, batzuek lehenxeago beste batzuek geroxeago eta besteak beranduago, bizitza bakarra dugula: gazte hil nahi badugu ere.

Lehiaketa



Nola du izena baserri honek?

Asmatzaileen artean ARGIAK
eskainitako bi sorta aukeran:

1- GURE MENDEA mahai jokoa-
ren lote oso bat (mahai jokoa ,
liburua eta CD-Roma)

2- Liburu sorta bat: Ihesi, Txora-
kikeriak I eta Txorakikeriak II
liburuekin.

Hori da hori bi lagunentzat afaria esku-eskura jartzea. Erraza zen ezta? Duela gutxi arte nahikoa utzia bazegoen ere, orain konpontzen ari dira, eta ziur laster itxura berria duela. Aginagatik gora bueltatxo bat ematera joaten dutenek ongi jakingo dute bai zein den aurreko alean atera genuen baserria, Arrate baserria hain zuzen ere. Asmatzaileak asko izan zarete, baina irabazlea bakarra, Joxe Goenaga Aristondok izango baitu Antxeta tabernan afaltzeko aukera. Zorionak!



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

PATRI
JATETXEA
Eguneko bazkariak
eta afariak



Urtinea Elkarte

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf: 943 36 22 55

Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

LABE-GOXO
Oxindegia - Gozotegia

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

URRIAK 16 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan hasita.

URRIAK 16 astelehena

- **Euskal prozesu demokratikoaren aldeko konzentrazioa.** Bordatxo aurreko errotondan arratsaldeko 20.00etan hasita.

OHARRAK

- 📍 **Galtzaragainan dagoen taberna saldu nahi nuke.** Interesatuok deitu 943 36 45 98 telefonora

📍 **Bigarren eskuko irratikasetak, telebistak... behar dira,** ahal izanez gero modu onean. Telf. 943 37 18 80 (Ander)

📍 **Udarregi ikastolan eskola kiroleko monitorea behar dira.** Deitu 943 26 12 16 edo 943 37 06 45 telefonoetara.

📍 **Mutil bat behar da igeltseritzako peoi lanetarako.** Baldintzak: Gidatzeko baimena eta autoa izatea./ 18 urtetik 25 urte bitartekoa izatea. Telefono honetara dei dezakezue: 943 36 37 67 (Josetxo)

**Aterpe eskulangintza taldeak aurten ere urrian irekiko du bere tailerra Etxealdian. Bertan tailařeta, marrazkia eta pintura, zaharberri-
tzeak eta eskulanak landu ahal izango dira. Izena eman nahi duenak 943-360744 telefonora deitu beharko du**

Zorionak, Noaua!

Datorren azaroaren 10ean gure aldizkariaren 100. zenbakia kaleratuko dugu. Benetan pozgarria da guretzat modu honetako albistea ematea, bost urteotako bidea ez baita erraza izan. Hasieran askok eta askok ez zuen uste denbora luzez aurrera joko genuenik, aurretik izandako saiakeren antzera bidean geratuko ginela uste zuenik bazen, beraz. Baina bidean topaturiko guztia ez da oztopo izan, bultzada garrantzitsuak ere izan ditugu, tarfean garrantzitsuena zurea, bazkide zaren horrena.

Bost urteko ibilbidean geldialdi bat egin eta atzera begiratuz gero, badago zeresanik. Urte hauetan guztietan makina akats zuzendu behar izan dugu eta akatsez akats gauza asko ikasi dugu. Hala eta guztiz ere oraindik bada zer zuzendua eta zer ikasia. Akatsak egitea ez da gauza atsegina, ezta pentsatu ere. Baina akatsen bat egiten dugunero, badugu nor esana. Gure hankasartzeak ez dira horrenbestean pasatzen eta hori gauza ona da, batetik herriko erreferentzi garrantzitsu izatea lortu dugulako, akatsak ikusten dituenak gure lana jarraitzen baitu. Eta bestetik, honek guztiak hamabostero kalitatez hobetuz den aldizkaria egitera bultzatzen gaituelako.

Aldizkaria gure Kultur Elkartearen ardatz nagusi izanagatik ez da bakarra. Azken urteotan bezala, aurrera begira kultur ekimenak bultzatzen eta antolatzen jarraituko dugu. Izango duzue, beraz, gure berri.

Oraingo eta urtebetetze berezi hau ospatzeko, datorren azaroaren 4an festa txiki bat antolatu dugu. Hemen doakizue egitaraua eta bide batez gonbidapena. Denok elkar ikusiko dugu, beraz, azaroaren 4an, ez ezazu huts egin!

Beste 100 baietz!

Azaroak 4, larunbata:

☀ **Goizeko 11etatik aurrera haurrentzako jaialdia pilotalekuan: Euskal jolasez blai! eta Martzel magoa.**

☀ **13ak aldera herriko bertsolari eta trikitilarien emanaldia.**

☀ **Ondoren, zikiro jana. (Bazkarirako txartelak herriko tabernetan eta gure egoitzan izango dira 2000 pezetaren truke).**


☀ **Bazkal ostean Tapia eta Leturiarekin erromeria.**

Aizpurua



*Zure mahaiak ondo
hornitu nahi baduzu
gurean duzu aukera!*

Telesforo Ardoak



Kale Nagusia, 25 Telf. 943 36 12 20

Egin zaitez Noauako bazkide

Merkeago afaldu nahi baduzu, edo
eta erosketak merkeago egin nahi
badituzu hona hemen zure aukera

%10eko
beherapena

Aldatz kirolendak

Mahuka

jantxidenda

Pauma Haur

jantziak

Truke jantxidenda

Usurbil optika

denda

Intza ileapaindegia

2.500 pezetatik
gorako otordua

eginez gero

%10eko

deskontua


Antxeta jatetxea

Patri jatetxea

Zumeta jatetxea



TXIMINIA ALTZARIAK



ALTZARIAK AUKERAN

1.000 metroko erakusketa- Prezio harrigarriak

Punta-puntako markak %50ean: Altzari-trinko, lastaira eta
lastaira-azpikoen aukera haundia

Sofa eta besaulkiak, logelak, aulkiak, mahaiak

Ehundaka altzairu %50ean

Mailatu txikiekin eta gabekoak

Osinalde poligonoa

Tel.: 943 37 09 66

USURBILGO OFIZIOAK ZURE ESKURA DITUZU

Igeltseritza

URDANTZI

Mugikorrek: 649 43 54 75
649 43 54 76
☎ 943 363370- 361439

ERRAZKIN IGELTSERITZA OROKORRA

Kale Nagusia, 1

☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25

Santuenea ☎ 629 42 05 65

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxadun konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

JOSUE ARANTZISTROKI

Igeltseritza eta pintura

Juan Jose enea, 6

Kalezar

☎ 943 36 05 50- 606 37 21 05

Aroztegiak

BEREZIARTUA

Egurrezko eta alumi-
nioegurrezko leihoak

Aginaga

Telf: 943 37 15 71

JOSE RAMON IBARGOIEA

Neurriko altzariak

Errotaberri kalea, 3 Osinalde

☎ 943 36 14 48 - 36 31 24

JOSE MARI IKUTZA

Ugarte, 4 Kalezar

Telf eta faxa: 943 37 12 21

Iturgintza

IÑAKI LATAILLADE

Iturgintza gas eta berogintza
INSTALAKUNTZAK

Mobila: 609 888021

Iturgintza - Gasa - Berokuntza J. Orbegozo

Bizkarra 1, 1. esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26
☎ 37 29 37 - 36 59 26

JOSEBA ARANGUREN

☎ 943 36 43 64

Iñaki Iturgintza

- Iturgintza orokorrean
- Berokuntzak
- Gasa

Mobila: 600 024 825

Es kaiola

JOSE ANTONIO ELORZA

Galtzaragaina 2-2B

TELF 943 37 34 70

Pinturak

FERNANDO PINTURAK

Enpapelaketak eta pinturak
orokorrean

Telf: 943 36 60 19- 36 34 60



RAMON BARCENILLA

. Pikor pintura eta gotele lanak

. Papereztatze-lanak

. Pintura-lanak orohar

Mobila: 629 46 09 66

Pinturas lon

943 83 09 37 ☎ 670 397504

Elektrizitatea

MIKEL IZAGIRRE

Goiz-Arri etxea, 37

Kalezar

Telf: 943 36 50 95

Gida honetan azaldu
nahi baduzu,
deitu!
943 36 03 21
telefonora